

**euskal herriko
arte garaikidearen
museoa
museo de
arte contemporáneo
del país vasco
museum of
contemporary art
of the
basque country**

UDA. 2025

Artium Museoa Bilduma

Artium Museoaren Bilduma 2.800 artelanek baino gehiagok osatutako ondare-funts garaikide publiko aparta da. Bilduma honen berezitasunak zehazten du museoaren eginkizuna, azken hamarkadetan Euskal Herriaren testuinguruan garatutako praktika artistikoetara hurbiltzeko funtsezko ekipamendua baita. Museoaren funtsetan dauden obren artean, Eduardo Chillida, Cristina Iglesias, Néstor Basterretxea, Jorge Oteiza, Esther Ferrer, Mari Puri Herrero, José Antonio Sistiaga, Antoni Tàpies eta Susana Solano artistek egindakoak daude.

Arkitektura

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, eraikitako 13.000 m²rekin, Vitoria-Gasteizko hirigune historikoaren ondoan dago, eta haren aretoak eraikinaren ageriko bi bolumenek lotzen dituen barruko plazaren azpian daude; plazaren gainean, museoaren lorategia.

Hainbat artelan aurkitzen ditu bisitariak Artium Museora iristean. Horien artean, *Números primos* (2003–2023) Esther Ferrer artistarena, *Mural de la Cinémathèque de Paris* (1972) Joan Mirórena eta Josep Llorens-ena edota *Un pedazo de cielo cristalizado* (2001) Javier Pérez-ena, besteak beste.

A0 ARETOA

BILDUMA HAU COLECCIÓN

Oinarrizko mugimenduak (1950 - 2000)

Erbestealdiaren amaiera eta Mari Paz Jiménezek 1945ean, Jorge Oteizak 1948an eta Néstor Basterretxeak 1952an Latinoamerikako herrialdeetan egindako bidaien eta egonaldien itzulera hartzen dira abiapuntutzat erakusketa honetan. Arantzazuko basilikaren proiektuaren inguruan bildutako komunitate artistikoari forma ematen dion genealogia bat. Era berean, funtsezkoa da Francoren diktaduraren aurka argi eta garbi agertutako artista eta idazleek hirurogeiko hamarkadan errepresaliatutako langileen egoeraren aurrean erakutsitako konpromisoa, hala nola Estampa Popularreko María Franciska Dapenak eta Agustín Ibarrolak, edo Gabriel Aresti, Blas de Otero eta Gabriel Celaya bezalako poeten ahotsak; hain zuzen ere, azken honengandik hartu dugu 1947an idatzitako Movimientos elementales poemaliburuaren izena.

A1 ARETOA

Chantal Akerman. Irudiari aurre egitea

Irudiari aurre egitea Chantal Akerman (Brusela, 1950 - Paris, 2015) zinemagile belgikarrari eskainitako erakusketa da, Claire Atherton haren ohiko kolaboratzaileak komisariatua. Erakusketan Akermanek hainbat urtetan Athertonekin elkarlanean sortutako zinema-instalazioak aztertuko dira, hiru dimentsioko espazio batean mugimenduan dagoen irudiaren dimentsio sekuentziala hedatuz.

A2 ARETOA

h. Josu Bilbao

Erakusketaren izenburua, *h*, hein batean, euskararen batasun prozesu historikoei buruzko hausnarketa batetik dator, baita soinu baten ekoizpenean parte hartzen duten gorputz-atalak definitzeko sortu ziren hitzetatik. Hori da izenburuak aipatzen duen /h/ hasperendunaren kasua, aho-barrunbearen eta diafragmaren arteko mugimendu eta harreman mota espezifiko bat. /h/ honek, aretoan gerta daitekeenari ere egiten dio erreferentzia, bertan bizi diren erritmo hautemangarri eta hautemanezinekin. Arnasketa-sistemaren bidez mintzaira bilakatzen den espazioari heltzeko modu horien harira, Estanis Comellak (Lleida, 1985) h-rako espreski ondu duen soinu-pista batek erritmo abstraktu bat proposatzen du, erritmo horretara egokitu gaitezkeelarik.

A3 ARETOA

Artelekun zehar. 1987-2002.

Artxiboan oinarritutako Artelekuri buruzko erakusketa bat

Artelekun zehar. 1987-2002 izango da Artium Museoak Euskal Herriko jardun artistikoen eta pedagogiaren arteko harremanei eskaini dizkien erakusketen hirugarren eta azken kapitulua. Arteleku prestakuntza- eta ekoizpen-zentroaren aurreneko hamabost urteetan zentratzen da, eta jarraipena ematen dio [Pentsatzeko leku bat](#) (2022) izenekoak -1957 eta 1979 bitarteko hezkuntza-ekimen esperimentalak landu zituena- eta [edonor, denok inor ez](#) (2024) deitutakoak -1978 eta 1991 artean prestakuntza artistikoa instituzionalizatzeko izandako prozesuei buruzkoak- hasitako ikerkuntzari.

Dohako bisita gidatuak

"Artium Museoan barrena"

Museoaren arkitektura, bilduma eta erakusketak ezagutzeko 50 minutuko ibilbideak. Museoako sarrera-txartelarekin doan. Erreserbak 945 20 90 20 telefonoan edota museoan bertan.

Abuztuak 3an, 17an eta 31ean. 12:00etan

Ezagutu ezazu museoa bere Miaketa-koadernoan eskutik

Uda honetan: "Lorategiko artelanak"

Museoa eta haren Bilduma hormetatik kanpo hedatzen hasi dira, Barruko plazarantz eta museoako lorategi-baratzerantz. Kanpoko esparru horretatik erakusketa-aretoen barrualdea ikus daiteke, orain gardenak diren okuluetatik begiratuz, edo baita A3 erakusketa-aretora zuzenean sartu ere, sarbide berriaren bidez.

Zatoz espazio horietan barrena ibiltzera eta han bizi diren artelanak

ezagutzera, zuretzat prestatu dugun miaketa-koaderno honen laguntzarekin!

Udako lantegi irekiak.

Zer ikas dezakegu landareetatik?"

Landareei eta haien ekosistemei buruzko hausnarketa proposatuko dugu, mutazio betean dagoen gure planetan. Naturaletik marrazten ikasiko dugu eta herbario bat sortuko dugu. Gure tintak eta pinturak sortuko ditugu landare, fruta eta loreekin, eta horiekin hainbat euskarritan margotuko dugu.

Uztailak 22, 23, 24, 29, 30, 31 eta abuztuak 1

Abuztuak 19, 20, 21, 22, 26, 27, 28 eta 29

11:30etik 13:30era

4-12 urte bitarteko haurrentzat, heldu bat lagun dutela.

Sarrera doan, aurrez izena eman beharrik gabe. Info: 945 20 90 20

Ordutegiak

Asteartetik ostiralera: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00

Larunbat, igande eta jaiegunak: 11:00-20:00

Jaiegun ez diren astelehenetan: itxita

Leihatila ordu erdi lehenago ixten da eta erakusketa aretoaren irteera museoa itxi baino 15 minutu lehenago hasten da.

Tarifak


Tarifa orokorra: 5 €

Doako sarrera: Arratsaldero; Igandeetan egun osoa;

eta Egunero: 14 urtez azpikoentzat, ikasleentzat, langabetuentzat eta pentsiodunentzat.

Helbidea

Frantzia Kalea, 24. Vitoria-Gasteiz, 01002 Araba



Un pedazo de cielo cristalizado, 2001

Javier Pérez (Bilbao, 1968)

Un pedazo de cielo cristalizado 2001ean sortu zen, Veneziako 49. Bienaleko Espainiaren Pabiloirako.

Tamaina desberdinetako beira puztuzko 12.000 burbuila baino gehiago ditu metalezko egitura erdiesferiko batean zintzilikaturik, halako era non elkarren kontra talka egitean bibratu eta tintin-hotsa egiten baitute. Museoaren sarrerako espazioan zintzilikatu zen 2002an, Artium Museoak atek ireki zituen urtean.



Números primos (2003–2023)

Esther Ferrer (Donostia I San Sebastian, 1937)

Hainbat artelan aurkitzen ditu bisitariak Artium Museora iristean. Horien artean, Esther Ferrer artistaren *Números primos* (2003–2023) obra garrantzitsua, museoaren barruko plazan kokatua. Zeramikazko gainazal handi bat da, Stanislaw Ulam (1909–1984) matematikariaren irudi kiribilean oinarritzen dena eta 41. zenbakiarekin hasi eta 10.039raino iristen den gresezko 10.000 teselaz osatua.



Lorategia

Museoa eta haren Bilduma hormetatik kanpo hedatzen hasi dira, Barruko plazarantz eta museoko lorategi-baratzerantz. Kanpoko esparru horretatik erakusketa-aretoen barrualdea ikus daiteke, orain gardenak diren okuluetatik begiratuz, edo baita A3 erakusketa-aretoa zuzenean sartu ere, sarbide berriaren bidez.